



Jose Mari Esparza Zabalegi, Txalaparta argitaletxeako editorea
Argazkiaren egilea: Mikel Berrio Zaratiegi

Jose Mari Esparza Zabalegi (1951-), Tafallan jaio zen 1951eko azaroaren 23an, familia ezkertiar eta errepublikazale batean. Aita nekazaria bazen ere, 11 urte zituenetik, Esparzak txiki-txikitatik jaso zuen etxean irakurtzeko zaletasuna eta liburuekiko jakinmina, batez ere amaren aldetik (Argentinan hezia), espiritu transgresoarekin batera. Iruñean ikasi zuen Salesianoetan, eta maisutza industrileko ikasketak egin zituen.

Gaztetatik inplikatu zen mugimendu sozialekin, baina 1968an senitarte batekin Parisera egindako bidaiak berebiziko eragina egin zion, eta han ikusitakoak behin betiko finkatu zituen aurretik bazituen ardura sozialak eta politikoak.

Ia 20 urte egin zuen lan Tafallako Victorio Luzuriaga S.A. Fundizioan, 17 eta 37 urteen artean eta, lan sindikala osatzeko, memoria historikoa berreskuratzeari ekin zion. Herrian sortuta zuten *Altaffaylla Kultur Elkartearen* eskutik argitara eman zuen, Mari Jose Ruiz Vilas eta Juan Carlos Berrio Zaratiegi egilekideekin, *Navarra 1936. De la Esperaza al Terror* (Altaffaylla, 1986) lan luze eta sendoa. Nafarroan sortu zuten

kolaboratzaile sareari esker, herriz herri jaso zituzten 3.000 baino gehiago fusilaturen izenak, baita erailketak egin zituzten pertsona askoren identitateak ere.

1988an eskatu zioten *Txalaparta* argitaletxearen kargu egiteko, urte batzuk lehenago Bilbon sortu eta artean geldirik zegoena. Bilbotik Tafallara aldatu zuten argitaletxea eta ordutik 2018era arte, 715 egileren 1.131 titulu eman ditu argitara (horietarik 366 titulu euskaraz) eta 3 milioi liburu hedatu ditu munduan zehar.

Esparak politikan ere hartu izan du parte. Frankismoaren ondorengo lehenengo udal hauteskundeetan *Agrupación Electoral Popular* taldearekin aurkeztu zen eta zinegotzi jardun zuen Tafallako udalean.

Memoria historikoa berreskuratzeko artxiboak arakatzzen ari zela ohartu zen nola Eliza ari zen inmatrikulatzen ordura arte jabego publikoa zuten elizak, basaelizak, parrokia-etxeak, lursailak, baratzak, larreak, mahastiak, olibadiak, futbol zelaiak, frontoiak eta beste hainbat ondasun higiezin. Beste nafartar batzuekin elkarlanean, *Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma* sortu zuen Nafarroan, eta estatu espainiarreko erkidego askotan antzeko plataformak sortzen lagundu du, Elizak bereganatu dituen ondasunak berriz ere jabe legitimoei, herritarrei alegia, itzultzeko helburuaz.

Edizio arloan, enpresa-konzentrazioari aurre egiteko eta argitaletxe txikiak babesteko asmoz, *Editores Independientes* taldea sortu zuen 1998an, non Txalapartarekin batera beste hiru argitaletxe elkartu ziren: ERA (Mexiko), LOM (Txile) eta TRILCE (Uruguay). Lau argitaletxeek lortu zuten beste argitaletxe txiki asko batzea, eta gaur egun *Alianza Internacional de Editores Independientes* taldeak 550 argitaletxe batzen ditu 53 naziotan, 6 sare linguistiko ditu eta Parisen du egoitza nagusia.

Editore Independienteek berebiziko indarra egin zuten UNESCOk *Kultura-Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala* onartzeko 2001 urtean. Bestalde, *Alianza Internacional*-ek bere kabuz, *Bibliodibertsitatearen Behatokia* jarri du indarrean 2016tik aurrera, kultura-industriaren konzentrazioak eragiten duen txirotze kulturala saihesteko.

UNESCOn Adierazpena NBek bere egin zuen nazio guztien aldeko botoarekin (birena izan ezik AEB eta Israel herrialdeena), eta ebazpenari esker herrialde latinoamerikar batzuetako kultura-industriek lortu dute beren gobernuek kulturaren arloa ateratzea AEBrekin dituzten Komertzio Librearen Itunetatik.

Editore Independienteak dira *Glocal* kontzeptuaren bultzatzaileak, *globala* eta *lokala* kontzeptuen batuketa eginez, uste baitute ezin dela egin unibertsalaren defentsa ez bada lokaletik, errealitatea nazionaletik. Eta nazioaren barruan, herritarren babesa dute ezinbesteko oinarritzat, Esparak dioten moduan, "*babes herritarrak sostengatzen ditu utopiaren armak, eta ez merkatuak*".

Liburuak editatzeaz eta aktibismoa kulturala egiteaz gain, Esparak artikulu ugari idatzi ditu prentsan eta 21 liburu eman ditu argitara, memoria historikoaren inguruan bereziki baina, baita ere, gai kultural eta politikoen gainean, haren bibliografian ikus daitekeenez.

Laura Mintegi Lakarra
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Egilearen lanak:

- Esparza, J.M. (1980). *Tafalla Vascona. Aportaciones a la historia de Tafalla y su comarca*. Tafalla. Ed. Jose Mari Esparza.
- Esparza, J.M. (1985). *Un camino cortado. Tafalla 1900-1939*. Elkar-Altaffaylla.
- Hainbat egile (1986). *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.
- Esparza, J.M. (1987). *La Teja de Medianoche / Gauerdiko Teila*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.
- Esparza, J.M. (1988). *Jotas heréticas de Navarra*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.
- Esparza, J.M. (1989). *Obreros somos... 1969-1989. El Movimiento Obrero en la Comarca de Tafalla*. Tafalla: Colectivo Unitario-LAB.
- Esparza, J.M. (1994). *¡Abajo las quintas! La oposición histórica de Navarra al Ejército español*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (1996). *Potosí. Andanzas de un navarro en la guerra de las naciones*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (2000). *Tafallako Historia / Historia de Tafalla*. (2 vol.) Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.
- Esparza, J.M. (2004). *Réquiem para sordos*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (2006). *Cien razones por las que dejé de ser español*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (2009). *Como puta por rastrojo: origen y uso de algunos dichos navarros*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.
- Esparza, J.M. (2009). *Tafalla. Historia y fotografía. Historia eta argazkilaritza*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea- Tafallako Udala.
- Esparza, J.M. (2011). *Mapas para una nación. Euskal Herria en la cartografía y en los testimonios históricos*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (2012). *Euskal Herria kartografian eta testigantza historikoetan*. Andoain: Berria.
- Esparza, J.M. (2012). *Vasconavarros. Guía de su identidad, lengua y territorialidad*. Tafalla: Txalaparta.
- Hainbat egile. (2013). *Los Pajes de Tafalla. Pioneros de la Jota Navarra*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea-Txoke.

- Esparza, J.M. (2015). *La sima. ¿Qué fue de la familia Sagardia?*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (2016). *Nuestro pueblo despertará. David Jaime y la República vasconavarra*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M., Aoiz, F. eta Zabaleta, P. (2016). *Tres tristes trileros. Del Burgo, Arbeloa y Aizpun*. Tafalla: Txalaparta.
- Esparza, J.M. (2018). *Apología. Memorias de un editor rojo-separatista*. Tafalla: Txalaparta.

Bibliografia

- Aznar Munárriz, Cristina (2019). Esparza Zabalegi, Jose Mari. In *Eusko Ikaskuntza*. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/esparza-zabalegui-jose-maria/ar-32714> -tik jaso 2019-04-26an.
- García Ribera, Andreu. Josemari Esparza, fundador de la editorial Txalaparta. In *El otro país de este mundo*. http://www.elotropais.com/index.php?option=com_content&task=view&id=97&Itemid=37 -tik jaso 2019-04-26an.
- Esparza, JM. (2018). *Apología. Memorias de un editor rojo-separatista*. Tafalla: Txalaparta.

Dokumentu hau aipatzeko: Mintegi Lakarra, Laura (2019). “Jose Mari Esparza Zabalegiren soslaia”. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan* URL: <https://mhli.net/artxiboa/jose-mari-esparza-zabalegi/>